



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

ALTSASUKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLAKO PATRONATUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK (NAO 87 zbk, 2011ko maiatzak 9)

I. TITULUA.HELBURUA, IZAERA ETA XEDEAK

1. artikulua. Patronatuaren izaera.

1. Altsasuko Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Patronatua erakunde autonomoa da, administrazio izaerakoa, Altsasuko Udalaren eskukoa, berezko nortasun juridiko publikoa duena estatutu hauetan zehazten diren egitekoak garatzeko.

2. Ulertzen da Udalak zerbitzu publikoa egiteko duen eskumenak eta erakunde autonomoaren eraketak ez dietela kalterik egiten Udalak Altsasuko Musika eta Dantza Eskolaren funtzionamenduan parte har dezaten bertze administrazio, pertsona edo entitateekin, izan publikoak ala pribatuak, sinatzen dituen lankidetzak hitzarmenei.

2. artikulua. Patronatuaren xedeak.

Patronatuak Altsasuko Musika eta Dantza Eskolaren sustapena, bultzada eta kudeaketa du xede. Haren bidez, udalerriko musika eta dantza heziketa guztia bideratuko du, eta horretarako hark ongi funtzionatzeko ekintzak egin beharko ditu. Xede horren bila ariko da; betiere, irabazteko asmorik gabeko zerbitzu publiko gisa.

3. artikulua. Patronatuaren helburuak.

Xede hori lortzeko, bere ahalen heinean, Patronatuak honako hauetara zuzenduko du bere lana:

- a) Musika eta Dantza Eskolaren beharren berri izatea beti, behar den plangintzaren oinarritako balioko duten azterketen bidez.
- b) Arautu gabeko musika eta dantza hezkuntzan eskaintza zabal eta askotarikoa garatzea, maila eta mota guztietan, hastapenetik goreneko mailetara.
- c) Musika mota guztiak entzuteko interesa sustatzea eta ikasleen zentzu kritikoa garatzea. Dantza estilo mota guztiekiko interesa piztea.
- d) Musika tresnen eta dantzaren irakaskuntza eskaintzea, ikasleek bakarka nahiz taldean jo dezaten.
- e) Musika irakaskuntza osagarria eskaintzea musika tresnak jotzen ikastearekin batera.
- f) Ikasleen artean ahots edo musika tresnen eta dantza taldeetan parte hartzeko interesa piztea. Horretarako harreman estua izanen da herrian diren elkarteekin edo etorkizunean sortzen ahal direnekin. Horretarako, herrian dauden musika elkarten zentsua prestatu eta gordeko da.
- g) Alor honetan eskuratutako balio eta lorpenak zabaltzea, euskal musikari eta dantzari, haren konpositore eta jotzaileei aipamen berezia eginez.
- h) Zerbitzuak ezarri, zaindu eta ematea auzoekin, kultur etxearekin eta Altsasuko gainerako erakundeekin batera, eta horretarako haiekin lankidetzan aritzea.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

h) Ikasleren batek talentu eta bokazio berezia duelako irakaskuntza profesionalari ekitea komenigarri bada, ikaslea aholkatzea eta behar bezala prestatzea irakaskuntza horri ekin ahal izateko.

i) Eskola funtzionamenduan mantentzea.

4. artikulua. Patronatuaren ahalmenak.

Bere jarduera atxikitako helburuetara egokitzeko, Patronatuak, estatu hauetan arautzen denari jarraikiz, halakoak egin ahalko ditu:

a) Edonolako ondasunak erosi eta eduki, eta horiek besterendu eta kargatu.

b) Bere ondarea administratu, baita bestelako pertsona fisiko edo juridikoek lagatako ondasunak ere.

c) Tasak edo prezio publikoak hartu.

d) Jaraunspenak, legatuak eta doan emateak onartu, dirulaguntzak, sorospenak eta bestelako laguntzak eskuratu edozein erakunde publiko nahiz pribatuetatik, are pertsona fisikoengandik ere.

e) Kontratu mota guztiak, hitzarmenak eta lankidetzak itunak sinatu.

f) Zerbitzua egiteko behar diren langileak kontratatu.

g) Urteko aurrekontu eta kontuak prestatu eta hasiera batean onetsi.

h) Ekintza judizial eta administratiboak erabili.

5. artikulua. Helbidea.

Patronatuaren egoitza egonen da Musika eta Dantza Eskolaren lokaletan (Burunda kalea, 1-A), lehengo "Nuestra Señora de la Compasión" ikastetxean.

6. artikulua. Iraupena.

Patronatua denbora mugagaberako eratu da, eta desegiten ahalko eta iraungirik gelditu estatutu hauetan aureikusten den moduan.

II. TITULUA. GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOKAK

7. artikulua. Gobernu organoak.

1. Patronatuak gobernu organo hauek ditu:

a) Lehendakaria.

b) Lehendakariordea.

c) Zuzendaritza Batzordea.

d) Eskola Kontseilua.

2. Zuzendaritza Batzordearen menpe eta kontrolpean, komenigarri ikusten diren adina lan batzorde eratzen ahalko dira. Haien lana izanen da gaiak aztertzea eta Batzordeari txostenak eta erabakiak hartzeko proposamenak igortzea. Batzorde horietan bai Zuzendaritza Batzordeko kideek bai horretarako egokiak juzgatzen diren pertsonen parte hartzen ahalko dute.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

3. Halako pertsona batzuk badira aldi berean zinegotzi, aita-ama, ikasle edo Eskolako irakasle nahiz langile ez irakasle, orduan ezin izanen dira inola ere izendatu kide anitzeko organoetako ordezkari.

I. KAPITULUAZUZENDARITZA BATZORDEA

8. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen osaera eta izendapena.

1. Zuzendaritza Batzordea Patronatuaren gobernu organo gorena da. Batzorde honek haren gobernua eta kudeaketa gorena izanen ditu bere gain, eta kide hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria.
- b) Udalaren ordezkariak.
- c) Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria, hizpidea duena baina botorik gabe.

2. Lehendakaria Altsasuko Udaleko alkatea izanen da, legegintzaldi bakoitzeko emaitzen arabera. Alkateak Udaleko beste ordezkari baten eskuetan uzten ahalko ditu bere eginkizunak, aldi baterako nahiz modu iraunkorrean.

3. Legegintzaldi bakoitzeko emaitzen arabera talde politiko bakoitzak Kultur Batzordean dituen kideak izanen dira Udalaren ordezkariak, gehi ordezeko bat. Udalak osoko bilkuran izendatuko ditu eta haien agintaldia udal legegintzaldikoa izanen da. Hauteskundeak egiten direnetik, bi hilabeteko epean berriuko dira.

4. Batzordeak izendatuko du Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria, udal hauteskunderen deialdia egitean indarra duen ikasturtean eta irakasleen klaustroak proposatuta. Batzordeko idazkari ariko da.

9. artikulua. Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak.

Batzordeak, Patronatuaren gobernu organo gorena den aldetik, haren helburuak betetzen direla zainduko du eta, horretarako, eginkizun hauek beteko ditu:

- a) Eskola Kontseiluak proposatuta, barne araubidea eta irakaskuntza, zerbitzu eta diziplina arloetako erregelamenduak onestea, Musika eta Dantza Eskolaren gobernu, zuzendaritza eta administraziorako beharrezkoak direnak.
- b) Musika eta Dantza Eskolarako plan estrategikoa prestatu eta gero ezartzeko prozesua bultzatzea.
- c) Musika eta Dantza Eskolaren barnean jarduerak koordinatzea eta Eskolaren funtzionamendu egokia kontrolatu eta begiratzea, administrazio, instalazio eta zerbitzuen arloan.
- d) Eskolako irakasleak kontratatzea, irizpide egokiak ezarri ondotik. Jarduera hori indarra duen legerian nola dagoen sailkaturik, lan sailkapen horixe izanen dute langile horiek.
- e) Musika eta Dantza Eskolako langile ez irakasleak kontratatzea.
- f) Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria izendatzea eta, hala behar badu, kargu gabetzea, irakasleen klaustroak proposaturik, baita arduraren bat duten gainerako karguak ere.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- g) Bere xedeak betetzeko, gastu eta dirusarreraren urteroko aurrekontua eta langileen plantilla organikoa prestatzea eta Udalari igortzea, behin betikoz onets ditzan.
- h) Urtean egindako gastuak ikuskatzea, behar diren txosten, kontu eta balantzeak idazteko. Hura Kontu Hartzailtzaren gainbegiradapean eginen da eta Udalari igorriko zaio, behin betikoz onets dezan.
- i) Erakunde publikoetan kudeatzea bilatzen den xederako laguntzak.
- j) Mota guztietako ondasunak salerostea, kredituak hartzea eta doan emateak, legatuak eta jaraunspenak onartzea.
- k) Gastuak baimendu eta xedatzea, ekitaldi bakoitzeko aurrekontua betearazteko oinarrietan erabakitzen denaren arabera.
- l) Ikasleak onartzeko irizpideak finkatzea, bereziki eskaera eskaintzen ahal diren postu kopurua baino handiagoa denean.
- m) Patronatuak jaso beharreko tasa eta prezio publikoak prestatzea, baita urteko dirusarrerak banatzeko arauak ere, eta Udalari igorriko zaizkio, behin betikoz onets dezan. Araudi horren barnean, beka pertsonal eta Nafarroako Gobernuarekiko osagarrien araubidea ezartzen ahalko da, familien egoeraren arabera.
- n) Musika eta Dantza Eskolako proiektu pedagogikoa onestea.
- ñ) Urte bakoitzerako eskola egutegia onestea.
- o) Irakagasi berriak eskaintzeko baimena aztertzea eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultur Departamentuari onets dezan eskatzea.
- p) Ekintza zibil, penal, administratibo, kontentzioso eta laneko orotan jardutea, edo auzitaratu gisa agertzea Patronatuak bereak dituen eginkizunak betetzeko.
- q) Laburbilduz, Patronatuaren xedeak betetzeari dagozkion eginkizun guztietan aritzea, baita barne araudian aurreikusten diren guztietan eta lehendakariari, Eskolako zuzendariari edo estatutu hauen eta haien garatzeko ematen diren erregelamenduen ondoriozko organoetako edozeini egotzen ez zaizkion ez zaizkien eginkizunetako edozeinetan ere.

10. artikulua. Bilkuren araubidea.

1. Zuzendaritza Batzordeak aurrez finkatutako egunetan eginen ditu bilkura arruntak eta, gutxienez, bi hilabetetik behin.

2. Halaber, Zuzendaritza Batzordeak bilkura bereziak egiten ahalko ditu, lehendakariak horrela erabakitzen duenean berez nahiz batzordekideen heren batek hala eskatuta.

3. Bilkuretarako deia eginen da astebete lehenagotik bederen, non ez duen gaiaren presak besterik eskatzen, orduan 48 ordu lehenagotik egin bailiteke. Halakoetan, gai zerrendaren lehen puntuan bileraren presa onetsi beharko da gehiengoz.

4. Lehen deialdian bilkura baliozkoa izateko, batzordekideen erdiek eta bat gehiagok agertu beharko dute. Bigarren deialdia lehenbizikorako finkatu baino ordu erdi geroago eginen da, hala behar bada, eta horretarako aski izanen da batzordekideen herenak agertzea.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.altsasu.net
altsasu@altsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

5. Bilkurak ez dira ez hasten ahal ez egiten ahal, bertan ez badira lehendakaria eta idazkaria, edo legez haien ordezkari direnak. Lehendakaria ez bada, Udalaren ordezkari den beste batzordekide baten esku utziko du bileran buru egitea.

6. Gai zerrendan sartu gabeko kontuak presako deklaratu direnean baizik ez dira erabiliko. Deklarazio horrek bertan direnen gehiengoa beharko du.

7. Toki araubidearen legeriak Udalaren osoko bilkuretarako eskatzen duenetan nahitaezkoak izanen dira Udaleko Idazkaritzaren eta Kontu Hartzaitzaren txostenak.

8. Batzordearen erabakiak baliozkoak izanen dira baldin eta agertzen direnen gehiengoaz hartzen badira. Batzarburuak kalitatezko botoa izanen du berdinketarik izanez gero.

9. Zuzendaritza Batzordearen bozketak arruntak, izendunak edo isilpekoak izan daitezke, edozein kidek eskatuta.

10. Batzordekideek ezin izanen dute parte hartu eztabaida edo erabakietan, interes zuzena baldin badute gaitan edo, halaberean, beren ahaideei eragiten badiete, hirugarren gradukoak barne. Halakoetan, interesdunak lekutu beharko du, gaia eztabaidatu eta bozketatzen den bitartean.

11. Lehendakariak gai zerrendako puntu zehatzen batera deitzen dituenak etortzen ahalko dira Batzordearen bilkuretara, hizpidea dutela baina botorik gabe, Patronatuaren zerbitzuko langileak izan ala ez.

12. Altsasuko Udalaren osoko bilkurak zer arau dituen, horietan zuzenduko dute bilkuren funtzionamendua.

11. artikulua. Bilkuren akta.

1. Akten liburua eramanen da eta hartan Zuzendaritza Batzordearen erabakiak jasoko dira. Honako hauek paratuko dira: bilkuren tokia, eguna eta ordua, lehendakariaren eta bertan diren batzordekideen izen-deiturak, eztabaidagai izan diren kontuak, emandako iritzien laburpena eta hartu diren erabakiak.

2. Lehendakariaren eta idazkariaren sinadurek baimenduko dituzte aktak.

II. KAPITULUA. ESKOLA KONTSEILUA

12. artikulua. Eskola Kontseiluaren osaera eta izendapena.

1. Eskolako irakaskuntza jardueraren plangintza eta antolaketa Eskola Kontseiluaren lana izanen da. Hark kide hauek izanen ditu:

a) Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria; berdinketak trenkatuko ditu bere kalitateko botoaren bidez.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altasu.net

altasu@altasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- b) Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria.
- c) Ikasketaburua.
- d) Aita-amen bi ordezkari.
- e) 18 urte baino gehiagoko ikasleen bi ordezkari.
- f) 14tik 17 urtera bitarteko ikasleen bi ordezkari, hizpidea dutela baina botorik ez.
- g) Irakasleen bi ordezkari.
- h) Langile ez irakasleen ordezkari bat.
- i) Idazkari akademikoa.

2. Udal hauteskundeen deialdia egiten den ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleen bi guraso edo legezko tutore izanen dira aita-amen ordezkariak.

3. 18 urte baino gehiagoko ikasleen ordezkariak izanen dira ikasle horietako bi, Udal hauteskundeen deialdia egiten den ikasturtean matrikulatuta daudenak.

4. 14tik 17 urtera bitarteko ikasleen ordezkariak izanen dira ikasle horietako bi, Udal hauteskundeen deialdia egiten den ikasturtean matrikulatuta daudenak.

5. Aita-amen, 18 urte baino gehiagoko ikasleen eta 14tik 17 urtera bitarteko ikasleen ordezkariak hautatzeko, Patronatuko buruak, udal hauteskundeak izan ondoko ikasturtearen hasieran, hamabost egun naturaleko epea hasiko du hautagaiak aurkez daitezzen. Epe hori bukatutakoan, aurkeztutako izangaien zerrenda argitaratuko da eta ordezkariak hautatzeko eguna finkatuko. Lau urtetarako aukeratuko dira ordezkariak, aukeratzeko dituzten egunetik aitzina kontaktzen hasita.

6. Bi irakasle izanen dira irakasleen ordezkariak. Klaustroak hautatuko ditu horretarako propio deitutako bilkuran, hara agertzen direnen gehiengo soilarekin eta bi urterako. Epea luzatzen ahal da.

7. Nork izendatu dituen, horiexek kentzen ahalko dituzte kargutik Kontseiluko kide guztiak, noiznahi kendu ere, baldin eta hautaketarako erabilitako prozedura eta sistema berak erabiltzen badira. Uko egiteagatik, eritasunengatik, heriotzengatik, kanpoan egoteagatik eta abarregatik gertatzen diren hutsuneen berri berehala emanen zaio izendapenaren ardura duen erakundeari, ordezkariak jar ditzan.

13. artikulua. Eskola Kontseiluaren eginkizunak.

12. artikuluan adierazitako eginkizun orokorraz gain, Eskola Kontseiluak beste hauek ditu:

- a) Eskolaren funtzionamenduari eta barne araudiari buruzko arauaren proposamenaz adostasun txostena egitea eta hura Zuzendaritza Batzordeari igortzea.
- b) Hezkuntza proiektuaz, ikastetxearen urteko planaz eta urteko memoriaz adostasun txostena egitea eta Zuzendaritza Batzordeari horren berrespena proposatzea.
- c) Plan eta programa hauetako bakoitzaren betearazpenean ikastetxeak egiten duen jarduera orokorra gainbegiratzea.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altzasu.net

altzasu@altzasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

- d) Jarduera osagarriak, hala nola kontzertuak, emanaldiak eta beste, programatu eta garatzeko jarraibideak egitea.
- e) Eskolak hezkuntza eta kultur arloan beste ikastetxe, entitate eta erakundeekin lankidetzan aritzeko jarraibideak finkatzea.
- f) Azpiegituren eta eskola materialen berriztapena sustatzea eta haien kontserbazioa zaintzea.
- g) Eskola egutegia proposatzea, Zuzendaritza Batzordeak onets dezan.
- h) Ikasleak onartzeko irizpideak iradokitzea eta horien gainean eztabaidatzea.
- i) Ikasleen portaerek Eskolako bizikidetzan larriki urratzen badute, gatazkak konpontzea eta zuzenbideak ezartzea, betiere xede pedagogikoak oinarri.
- j) Matrikulazioaren prezio publikoak aztertzea, eta horien gaineko informazioa biltzea Zuzendaritza Batzordearen aldetik, onetsiak izan aitzin.
- k) Irakasgai berrien eskaintza aztertzea eta horien gaineko txostena egitea.
- l) Baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna aztertu eta baloratzea, baita bizikidetzan arauen aplikazioa ere.
- m) Eskolako eskola errendimendua eta errendimendu orokorra aztertu eta baloratzea, eta ikastetxeak hobeki funtzionatzeko edozein hobekuntza proposatzea.
- n) Bere eginkizunetan aritzeko komenigarri ikusten dituen batzorde guztiak sortzea.

14. artikulua. Eskola Kontseiluaren funtzionamenduaren araubidea.

Antolaketaz eta funtzionamenduaz Zuzendaritza Batzordeak propio onesten duen erregelamenduan arautuko dira Kontseiluaren bilkura araubidea eta haren funtzionamenduaren gainerako alderdiak.

III. KAPITULUA. LEHENDAKARIA ETA LEHENDAKARIORDEA

15. artikulua. Lehendakariaren eginkizunak.

Hona hemen lehendakariaren eginkizunak:

- a) Patronatuaren ordezkari izatea eta ahalordeak egilestea. Batzordeko beste edozein kideren esku uzten ahal du bere ahalmena, kide hori Udaltzako bada.
- b) Batzordearen bileretarako deia egitea eta gai zerrenda finkatzea, bilkuretako buru aritu eta zuzendaritza lanetan jardutea.
- c) Patronatuak sortzen duen dokumentazioa sinatzea, Batzordearen erabakien betearazpena kontrolatzea eta ordainketak baimentzea, aurrekontua betearazteko oinarrietan ezarritakoari jarraikiz.
- d) Zerbitzuaren ikuskaritza eta zuzendaritza gorena eramatea.
- e) Zerbitzua hartzeagatik partikularrek ordaindu beharreko tasa edo prezio publikoen likidazioak onestea.
- f) Presako neurriak hartzea, inguruabar larriak direla-eta Batzordearen deia egiteko aukerarik ez dagoenean. Hari hurrengo bilkuran emanen zaio guztiaren berri.
- g) Orokorrean, Udalean Alkatetzari dagozkionak, eta barne araubideak haren esku uzten dituenak.



16. artikulua. Lehendakariordea.

1. Kultur Batzordeko burua izanen da lehendakariordea. Udaleko beste ordezkari baten eskuetan uzten ahalko ditu bere eginkizunak, aldi baterako nahiz modu iraunkorrean.

2. Lehendakariordeak laguntza emanen dio lehendakariari bere eginkizunetan aritzean eta hura ordeztuko du kanpoan edo eri egoteagatik bere eginkizunetan aritzea posible ez duen guztietan. Lehendakariak espresuki utzi beharko du kargua lehendakariordearen esku, egintza hori eragozten duen ezintasun agerikoa denean izan ezik.

IV. KAPITULUA. BATZORDEKO IDAZKARIA

17. artikulua. Batzordeko idazkariaren eginkizunak.

Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Patronatuko idazkariak behar bezala deitzen diren batzorde edo bilkuretan parte hartuko du eta horien akta eginen du, hartzen diren erabakien tramitazioa zainduko du eta artxibo administratiboak berezko dituen espediente eta agiriak begiratuko ditu.

III. TITULUA. ONDASUNAK, BALIABIDE EKONOMIKOAK, AURREKONTUAK ETA KONTUAK

18. artikulua. Patronatuaren ondarea.

1. Musika eta Dantza Eskolako Patronatuaren ondarea honela osaturik dago:

- a) Udalak atxikitzen dizkion ondasunak, jatorrizko kalifikazio juridikoa gordeko badute ere.
- b) Patronatuak beste edozein titulu bidezko erabiliz erosten dituenak.

2. Horretarako, Patronatuak ondare hori osatzen duten ondasunen zerrenda eginen du bere inbentarioan.

19. artikulua. Baliabide ekonomikoak.

Altsasuko Udalaren Musika eta Dantza Eskolaren baliabideak honela osaturik daude:

- a) Udalak urtero bere aurrekontuetan atxikitzen dion diru ekarpena.
- b) Bere ondarean produktu, aprobetxamendu, fruitu eta errendimenduak.
- c) Edozein entitate publiko nahiz pribaturen dirulaguntza eta laguntzak, eta partikularrenak.
- d) Ikasleengandik heldu diren dirusarrerak (matrikularen kuota eta tasa edo prezio publikoak).
- e) Beren ardurapean duten erakundeetako kide edo lankideen kuotak.
- f) Beren jarduera berariazkoek, hala nola kontzertuak edo zerbitzuak egitea, ekartzen dituzketen dirusarrerak.



20. artikulua. Patronatuaren aurrekontua.

Aurrekontuaren proiektua Patronatuko buruak prestatuko du, zuzendariak lagundurik, eta Zuzendaritza Batzordeak onetsi ondoan Udalari igorriko zaio, osoko bilkuran onets dadin, urte bakoitzeko urriaren lehena baino lehen. Ustiapen eta kapital aurrekontua prestatuko da, toki entitateen aurrekontuen egiturari egokitua, Udalaren aurrekontu orokorrari eranskin gisa gehituko zaiona.

21. artikulua. Patronatuaren kontuak.

Patronatuaren kontuak Udalaren kontuei gehituko zaizkie, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legean eta Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraikiz.

22. artikulua. Kontratazioa.

1. Kontratu publikoei buruzko foru legeetan ezartzen dena izanen da Patronatuaren kontratazio araubidea.

2. Kontratatzeke eskumena ondoko organoei dagokie:

a) Lehendakariari:

-Urteko kontratazioak, haien zenbatekoak gainditzen ez badu aurrekontuko dirusarrerara arunten %10.

-Urte anitzetarako kontratazioak, baldin eta gastua aplikatzen den ekitaldien kopurua lautik gorakoa ez bada, eta urte guztietako zenbatekoak, baturik, arestian aipatu portzentajea gainditzen ez badu.

b) Zuzendaritza Batzordeari, gainerako kasuetan.

IV. TITULUA. LANGILERIA

23. artikulua. Patronatuko langileak.

1. Patronatuak bere xedeak betetzeko behar adina langile izanen ditu, eta haien kopuru, kategoria eta eginkizunak Batzordeak onesten duen plantillan zehaztuko dira. Plantilla hori, dagokion lan eskaintzarekin batean, urtero prestatuko da aurrekontuekin batean, eta Udalari igorriko zaio, osoko bilkuran onets dadin.

2. Patronatuko langileen araubidea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileria arautzen duen foru araudian ezarria dago. Langileen ordainsarien baldintzak zehaztu eta aldatzeko, bete beharko dira osoko bilkuran hartarako onesten diren arauak, betiere bat etorri Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileriar buruzko araudiarekin.

24. artikulua. Langileen burutza.

Patronatuko lehendakariak langileen burutzaren arloko ahalmenak ditu.



25. artikulua. Zuzendaritza taldea.

1. Zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkari akademikoak osatuko dute zuzendaritza taldea.
2. Zuzendariak ikasketaburua eta idazkari akademikoa izendatuko ditu bere agintaldiak irauten duen denborarako, eta Zuzendaritza Batzordeari emanen dio izendapenaren berri.
3. Zuzendaritza taldeak eginkizun hauek izanen ditu, besteak beste:
 - a) Ikastetxearen funtzionamendu egokia eta irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuen koordinazioa begiratzea, deusetan ukatu gabe klaustroari eta Eskola Kontseiluari egozten zaizkion eskumenak.
 - b) Proposamenak aztertzea eta klaustroari eta Eskola Kontseiluari aurkeztea, hezkuntza komunitate guztiak irakaskuntza, arte eta kultur jardueran modu koordinatuan parte hartzea errazteko eta bultzatzeko.
 - c) Ikastetxeko hezkuntza proiektua, barne araubidearen erregelamendua eta urteko programazio orokorra prestatu eta eguneratzea, kontuan harturik Eskola Kontseiluak eta klaustroak egiten dituzten proposamenak.
 - d) Ikastetxeko giza baliabideak eta baliabide materialak kudeatzea, haren antolaketa eta funtzionamendu egokiaren bitartez.

26. artikulua. Zuzendariaren eginkizunak.

Eskolako zuzendariari dagokio:

- 1) Estatutu hauek, plan pedagogikoa, urteko plana eta Patronatuak onesten dituen arau eta ordenantza guztiak betetzen direla begiratzea, eta orobat Batzordeak bere eskumenen esparruan hartzen dituen erabakiak, eta eskatzen zaion informazioa eta dokumentazioa ematea.
- 2) Urtero, plan pedagogiko eguneratua eta ikasturte bakoitzeko memoria prestatzea eta Eskola Kontseiluaren aitzinean aurkeztea.
- 3) Zerbitzuak zuzentzea eta, bera berez, horien erantzule izatea, lehendakariaren goreneko zuzendaritza eta ikuskaritza gainean dituela.
- 4) Bulegoetako eta Patronatuari atxikitako langileen zuzendaritza eramatea.
- 5) Patronatuaren sinadura eramatea ordainagiritan eta barne gutunerian eta, oro har, lehendakariaren sinadura behar ez duten agirietan.
- 6) Egindako kudeaketan, egoera ekonomikoaren eta kontuan hartu beharreko aurreikuspenen berri ematea Zuzendaritza Batzordeari.
- 7) Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen dituen kudeaketak zuzentzea eta zerbitzuen funtzionamendurako beharrezko ikusten diren neurri guztiak proposatzea.
- 8) Behar den koordinazioa segurtatzea Patronatuaren esku utzitako zerbitzuen gobernu eta administrazioaren eta irakaskuntza, arte eta kultur jardueraren artean, huraxe baita erakunde autonomoaren xede soziala.
- 9) Irakasleen klaustroaren bileren deialdia egitea eta haietan buru egitea.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altasu.net

altasu@altasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

10) Musika eta Dantza Eskolaren barne araubiderako aurreproiektuak prestatzea, eta orobat haren ardurapeko zerbitzu, ezarpen edo talde artistikoei dagokienez, barne direla jardueren programak, aurrekontuak, materialen eta giza baliabideen premiak eta bere jarduketa eremua hobetzen laguntzen duten gainerako inguruabar guztiak.

11) Irakasle eta ikasleen gain eginkizun akademikoak eta diziplina arlokoak eramatea, eta orobat haren ardurapean gelditzen diren elkarte eta zerbitzuetako osakideen gain, eginkizun horiek lehendakariaren, Zuzendaritza Batzordearen edo Eskola Kontseiluaren eskuetan egon ezik.

12) Musika eta Dantza Eskolako kultur eta musika arloan duen politika garatzea eta jarraibideak gauzatzea eta, hartara, Batzordeari komenigarri ikusten diren ekimen guztiak proposatzea.

13) Esku hartzea ikasleak onartzean, irakasleak eta instrumentistak hautatzean, ziurtagiriak luzatzean eta Eskolak eta musika nahiz dantza taldeek berezko dituzten gainerako egintzetan, eta musika kulturarekin eta folkloarekin zerikusia duten beste jardueretan, betiere lege xedapenek eta Patronatuak onesten dituen arauak ezartzen duten moduan.

14) Bere ardurapeko zerbitzu, ezarpen eta taldeak antolatu, zuzendu eta ikuskatzea eta, hartara, irakaskuntza, arte eta kultur arloko alderdiak alderdi ekonomiko, administratibo eta teknikoekin koordinatzea.

15) Ikasleen aita-amek eskatuz gero, harrera egitea beraiei.

16) Zuzendaritza Batzordeak eta lehendakariak espresuki haren esku uzten dituzten gainerako eginkizunetan aritzea, baita zerbitzuen kudeaketak berezko dituen gainerakoetan ere, espresuki Patronatuko gobernu eta administrazio organoarendako ez badira.

27. artikulua. Ikasketaburuaren eginkizunak.

a) Zuzendaritza taldearendako aipatu diren eginkizunen garapenean parte hartzea, gainerako taldekideekin koordinatuta.

b) Zuzendaritzaren jarraibideekin bat, irakasle eta ikasleek hezkuntza proiektuarekin eta urteko programazioarekin loturik egiten dituzten jarduerak koordinatzea, izan horiek akademikoak, orientazio eta tutoretzakoak, eskolaz kanpokoak nahiz osagarriak, eta egin egiten direla begiratzea.

c) Irakasleen hobekuntzarako jarduerak koordinatzea, eta prestakuntza jarduerak eta ikastetxean egiten diren proiektuak planifikatzea eta koordinatzea.

d) Zuzendaritzaren jarraibideekin bat, irakasleen zuzendaritza eramatea arlo akademikoari dagozkion guztietan.

e) Ikasle eta irakasleen ordutegi akademikoak prestatzea, zuzendaritza taldeko gainerako kideekin batera eta urteroko programazio orokorrean sartutako irizpide pedagogiko eta antolaketa arlokoekin bat, baita horiek hertsiki betetzen direla begiratzea ere.

f) Guztiak erabiltzeko espazio, baliabide eta material didaktikoen erabilera koordinatzea, hezkuntza proiektuan eta urteroko programazio orokorrean ezarritakoari jarraikiz.

g) Zuzendaritzaren titularrak bere eskumenen esparruan edo dagozkion erregelamendu organikoak eta indarra duten xedapenek aginduta manatzen ahal dizkion gainerako eginkizun guztiak.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

28. artikulua. Idazkari akademikoaren eginkizunak.

Hona hemen idazkari akademikoaren eginkizunak:

- a) Zuzendaritza taldearendako aipatu diren eginkizunen garapenean parte hartzea, gainerako taldekideekin koordinatuta.
- b) Ikastetxeko araubide administratibo eta ekonomikoa antolatzea.
- c) Klaustroan eta Eskola Kontseiluan idazkari lanetan aritzea, bilkuren akta egitea eta hartutako erabakien fedea ematea zuzendariaren ikus-onetsiarekin.
- d) Ikastetxeko inbentario orokorra egitea eta eguneratarik edukitzea, eta instalazioak eta eskola ekipamendua mantentzen eta zaintzen direla begiratzea, zuzendariaren jarraibideekin bat.
- e) Zuzendariak bere eskumenen esparruan edo dagozkion erregelamendu organikoek eta indarra duten xedapenek aginduta manatzen ahal dizkion gainerako eginkizun guztiak.

V. TITULUA. UDALAREN AHALMENAK ETA HAREN ESKU HARTZEA

29.artikulua. Udalaren esku-hartzea.

Altsasuko Udalak, Patronatuari dagokionez, eginkizun hauek gordeko ditu beretako:

- a) Aurrekontua behin betikoz onestea.
- b) Urteko kontuak behin betikoz onestea.
- c) Plantilla organikoa eta lan eskaintza publikoa behin betikoz onestea.
- d) Erabiltzaileek ordaindu beharreko prezio publikoak onestea.
- e) Ondasun higiezinak erosi, besterendu edo kargatzeko alde aurreko baimena.
- f) Aldez aurreko baimena, kredituak eta maileguak hartzeko.
- g) Pertsona fisiko edo juridikoen hitzarmenak onestea, kasuan kasuko Udalbatzaren agintaldia baino denbora luzeagoan izan behar badute indarra.

30. artikulua. Estatutuen aldaketa.

Udalak ofizioz edo Zuzendaritza Batzordeak proposatuta egingen du estatutu hauen aldaketa. Horiek prestatzeko zer bide erabili zen, horrexeri segituko zaio.

31. artikulua. Patronatuaren desegitea.

1. Altsasuko Udalak, osoko bilkuran bildurik, noiznahi desegiten ahalko du Udalaren Musika eta Dantza Eskolako Patronatua. Horretarako arrazoiak izan daitezke likidezia falta, eskolaren funtzionamendu okerra, ikasle falta edo Udalak osoko bilkuran larrizat hartzen duen beste edozein.

2. Udalak ofizioz edo Zuzendaritza Batzordeak proposatuta erabaki dezake desegitea, betiere Udalbatza osatzen dutenen legezko kopuruaren gehiengo osoa alde badago.



Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

3. Patronatua deseginda, hari atxikitako ondasunek beren lotespena galduko dute, eta Altsasuko Udalak eskuragarritasun osoa izanen du haien gain. Orobat, Patronatuarenak baizik ez diren ondasunak Altsasuko Udalaren jabetza bilakatuko dira.

4. Patronatua deseginik, Udalak beretako hartuko ditu hartan zerbitzu egiten duten langileak, Udalaren beste edozein erakunde, enpresa edo zerbitzutan lan egin dezaten. Haien egoera juridikoa eta eskuratutako eskubideak errespetatuko dizkie.

VI. TITULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

32. artikulua. Patronatuaren araubide juridikoa.

1. Patronatuko Zuzendaritza Batzordearen eta lehendakariaren egintzek amaiera ematen diote administrazio bideari.

2. Patronatuko organoen ebazpenen kontra paratzen ahalko dira Nafarroako toki entitaten egintzen kontra une bakoitzean bidezko diren errekursoak.

33. artikulua. Aplikatzekoak diren arauak.

Estatutu hauetan jasotzen ez den orotan, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legeari, Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legeari eta aplikatzen ahal diren gainerako lege xedapenei jarraikiko zaie.

Xedapen gehigarria.-Garatzeko arautegia.

Estatutu hauek indarra hartzen dutenetik gehienez ere sei hilabeteko epean, lehendakariak, zuzendariak lagundurik, besteak beste alderdi hauek arautzeko beharrezkoak diren erregelamendu guztiak aurkeztu beharko dizkio Zuzendaritza Batzordeari:

- a) Ematen diren irakaskuntzak eta haien tratamendua (plan pedagogikoa).
- b) Musika eta Dantza Eskolako langileak (eskubide eta betebeharrak).
- c) Ikasleak (eskubideak eta betebeharrak).
- d) Gobernu organoak eta haien eginkizunak.
- e) Patronatuaren antolaketa osagarria (batzorde osagarriak).
- f) Ikasleen aita-amen elkarteak (osaera eta eginkizunak).
- g) Irakasleen klaustroa (osaera eta eginkizunak).
- h) Eskolako araubide ekonomikoa eta administraziokoa.

Xedapen iragankorra.-Zuzendaritza Batzorde berriaren hautapena.

Gehienez ere hiru hilabeteen hautatuko da Zuzendaritza Batzorde berria, estatutu hauek indarra hartzen dutenetik hasita. Horren bitartean, egungo Zuzendaritza Batzordeak jardunean segituko du, nahiz eta estatutu hauek aplikatuko diren.

Azken xedapena.-Indarra hartzea.



Altsasuko Udala
Ayuntamiento de Alsasua
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61
FAX 948 56 38 55
www.alsasu.net
alsasu@alsasu.net
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Estatutu hauek Nafarroako Aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egun baliodunean hartuko dute indarra.